IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1693

IRAGARKIA, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarena, Galdakao-Usansoloko Ospitalerako anestesiako lan-estazioak eskuratzeko espedientearen lizitazio-prozedura irekiari dagokiona.

1.– Entitate esleitzailea.

a) Erakundea: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua, Osasun eta Kontsumo Sailari atxikitako ente publikoa, Erakunde Zentrala (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz, Araba).

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Erakunde Zentrala - Kontratazio Zerbitzua.

c) Espedientearen zenbakia: G/130/20/1/0606/O631/0000/032012.

2.– Kontratuaren ezaugarriak.

a) Kontratu-mota: hornidura.

b) Helburua: Galdakao-Usansoloko Ospitalerako anestesiako lan-estazioak.

c) Loteak: bai, 2 lote.

3.– Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

4.– Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 192.000 euro (BEZik gabe). Kontratuaren balio zenbatetsia: 192.000 euro (BEZik gabe).

5.– Behin-behineko bermea: ez.

6.– Agiriak eta argibideak: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Erakunde Zentrala; Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

7.– Kontratistaren betebehar espezifikoak.

a) Sailkapena: ez.

b) Ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun tekniko eta profesionalari buruzko beste betebehar batzuk: ikus oinarriak.

8.– Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: 2012ko maiatzaren 2a, 14:00etan.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio-klausula zehatzen agirian eskatutakoak.

c) Aurkezteko lekua: 1.a) puntuan adierazitakoa.

d) Lizitatzaileak zenbat denbora eutsi behar dion bere eskaintzari: 2 hilabete, proposamen ekonomikoak irekitzen direnetik.

e) Aldaerak: bai, ikusi oinarri teknikoen plegua.

9.– Eskaintzak baloratzeko irizpideak, administrazio-klausula zehatzen pleguko karatulan ezarritakoaren arabera.

Formuletan oinarritutako irizpideak: % 52.

– Prezioa: 40 puntu.

– Bermea: 12 puntu.

Balio-iritziak: % 48

– Ezaugarri teknikoak: 38 puntu.

– Prestazio gehigarriak. Hobekuntza teknikoak: 10 puntu.

(Ikus irizpideen garapena: administrazio-klausula zehatzen karatulako 30. puntuan adierazitakoa).

10.– Eskaintzak irekitzea.

a) Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideen gutun-azala irekitzea: Entitatea: Erakunde Zentrala, helbidea: Araba kalea, 45, 01006 Gasteiz (Araba), Eguna: 2012ko maiatzaren 9a, 12:30ean.

b) Eskaintza ekonomikoaren gutun-azala irekitzea: Entitatea: Erakunde Zentrala, helbidea: Araba kalea, 45, 01006 Gasteiz (Araba), Eguna: 2012ko ekainaren 1a, 11:30ean.

11.– Bestelako argibideak.

12.– Iragarkien gastuak: 447,99 euro; esleipendunak ordainduko ditu.

13.– Hala badagokio, deialdiari buruzko informazioa lortzeko edo pleguak eskuratzeko atari informatikoa edo web-orria: www.osakidetza.euskadi.net.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 23a.

Kontratazio Mahaiko ordezko lehendakaria,
ÁLVARO SÁENZ DE VITERI BELLO.